

zakilixut

© Olariagak



Nagore Rodriguez | DONOSTIA

ATZEKOZ AURRERA

Artxila Murtxila!!!!



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Txan magoa irakasle dutela, isilpean gorde beharreko hainbat trikimailu ikasiko dituzte haurrek, euskaraz.

Euskara eta magia uztartu dituzte Txan magoak eta Truk enpresak magia bilduma batean

Txanponak, sokak, haria... makila magikoa eta Txan Magoa bezalako irakasle bat nahikoa dira ikusleak aho zabalik uzteko moduko trikimailuak egiteko. Horiek denak bildu ditu Truk enpresak argitaratu berri duen magia bilduman.

Txan mago-irakasleak magiaren sekretu guztiak kontatu dizkie Euskal Herriko haurrei bideo batean, euskaraz magia egiten ikas dezaten. Bideoaz gain, kutxa magikoa, Txan magoaren panpina bat,

makila magikoa eta magoarentzako elastiko dotore bat ere biltzen ditu euskarazko lehen magia sortak. «Euskarazko magian hutsune handia zegoen, eta hutsune hori beteko du bilduma berri honek», azaldu zuen atzoko aurkezpenean Txan magoak.

Etxean egiteko moduko joko arruntak ikasiko dituzte haurrek bildumari esker, baina, arruntak izan arren, «kalitate handikoak eta profesionalak» dira. Material aldetik, ordea, ez dute tresna berezirik eskatzen:

zotzak, klipak, txanponak, billeteak eta horrelakoak lortzea nahikoa izango da.

Non dago Txan magoa?

Jokoak ondo ateratzeko mago berriek lan handia egin beharko dutela esan zuen Txan magoak: «Haurrek, bideoari esker, berehala ikasiko dituzte trikimailuak, baina gero lan handia egin beharko dute ondo ateratzeko. Hala ere, bi egunetan erakustaldi bikaina egiteko gai izango dira».

Besteren artean, Txan magoa

bera desagerrarazi ahal izango dute: Txan magoa kutxa magikoan jarri, eta non sartu da irakaslea? *Artxila Murtxila!* hitz magikoak esan, eta berriro gure artera itzuliko da.

Truk eta Orbaizetaren lehen produktua iaz sortutako *Kamiltxo* hartza izan zen. «Nahiko magia egin genuela iruditu zitzaigun orduan. Izan ere, Piriñoetan bizi den *Camille* hartzak euskara ikastea lortu genuen; Txan magoaren laguntza izan genuen. Orain, bide horri jarraitu diogu: euskara eta magia

batu nahi izan ditugu, eta horretarako zein aproposagoa Txan magoa baino?», azaldu zuen Truk enpresako kide Juan Mari Arrietak.

Txan magoa gustura dago lortu duten produktuarekin: «Haurrentzat magia produktuak egiteko eskatu didate askotan; aspalditik buruan genuen ideia bat zen. Oso pozik nago, produktua esku artean dugulako, eta, gainera, euskaraz».

Hiru eta hamaika urteko haurrentzat da bilduma. «Hala ere, muga elastikoaren neurriak jartzen du; magia egiteko trikimailuak guztiek ikas ditzakete», erantsi zuen Arrietak.